

ZARAUZKO PARROKIA



*Sinodo-erako elizaren alde
elkartasuna | partaidetza | misioa*

*Por una Iglesia sinodal
comuni3n | participaci3n | misi3n*

PARROQUIA DE ZARAUTZ

SINODORAKO EKARPENETAN PARTE HARTZAILEAK:

Parrokiako Sinodorako Taldea

Igandeko Ebanjelio Taldea

Asis Sarea Taldea

San Pelaio Kristau Elkarteko Taldeak

San Pelaio Kristau Elkarteko zenbait eliztar

BIDAI LAGUNAK

Elkarrekin ibili behar gara Espirituaren laguntzarekin. Hori da Jesusek eskatzen diguna. Elkarrekin ibiltzeak ez du esan nahi denok berdinak izan behar dugunik, norabide berean ibili behar garela baizik. Perfekziorik ez dugula aitortuz eta apaltasun, maitasun eta barkamen jarrerak izanez. Ez dugu inor atzean utzi behar. Elizaren perimetrotik kanpo daudenak ere lankidetzat hartu behar ditugu: dibortziatuak, homosexualak... bidean ez galtzeko helburu eta abiapuntu komunak izanaz.

Urteak pasa ahala, bidelagun desberdinak izan ditugu:

- Katekista taldekideak.
- Liturgia taldekideak.
- Otoitz tailerreko taldekideak.
- Gaixoen Pastoralta taldekideak.
- Maria Inmaculada erlijiosoak eta beraien (eta beste batzuekin) urteetan egindako prozesua (Formazioa, ekintzak, konpromiso soziala...).
- Beste Eliz Elkartean bildu garenok kristau esperientzia landu, osatu, konpartitu, sendotu... ahal izateko.
- San Pelaio kristau elkartera joaten diren eliztarrak.
- Arantzazuko frantziskotarrak.
- Gure formazioaz arduratu diren pertsonak.
- Xabier Lete, Josean Artze.

Gure erretorea, makina bat saio elkarrekin egin, katekesi saioak prestatu, sinesmen esperientzia berri, sinesmen imajina argitzeko eta aldatzeko lagundu, gertu egon.

Era berean, eta bizitzaren alde, ona egiten, lan egin dutenak, talde desberdinetakoak, kristauak izan ala ez.

Etxekoak, lagunak, behartsuak, elizatik urrun ibiltzen direnak...

Ama.

Gazteak ginenean apaiz eta erlijio batzuek Vaticano II Eliza batzarretik abiatuta akonpainatzeko egin zuten aukera, modu aktiboan kristau elkarteetan parte hartzeko animatu, gurea entzun eta baloratu...

Hainbat apaizek sinodalidadeaz sinestu (nahiz eta hitz hori ez erabili) eta kontseilu aktiboak animatu, kristau elkarteak suspertu, laikoengan erabateko konfiantza jarri ...

Salletarrekin bizi izandako bete beteko sinodalidadea (nahiz eta hitz hori ez erabili), duela 30 urte elkarrekin egindako prozesuan; formazioa, parte hartzea, ardurak, animazioa...

ALDERDI BAIKORRAK

Sinesmen esperientzia behetik gora landu, berritu: Jainkoaren maitasuna.

Elkarrekiko babesa, gertutasuna.

Formazioa.

Karismak deskubritu.

Konpromiso soziala.

Beharraren bidetik fede esperientzia egin.

Kristau fedeak bizitzarako eskaintzen duen "balsamoa".

Sufrimenduaren aurrean aurre egiteko aukera.

Misioa eguneroko bizitzan eta egin beharretan konpartitu.

ZAILTASUNAK

Apaiz, erlijiosoak..., bakoitza bere aldetik. Elkarrekin ez gabilta.

Apaizarekiko, era zabalean

Goi maila batean daude.

Autoritatea bai, umiltasun maila txikia.

Enpatia falta.

Gure beharrik ez omen dute izan.

Ekipoan lan egiteko beharrik ez.

Aintzakotzat ez hartu.

Kontseiluak? Beharra bai?

Laiko eta emakumeei entzuteko aldekoa ez den jarrera

Laiko/seglarrok dugun men egiteko joera (isiltasuna, “pecado de omisión”).

Agian, gure elkarteetan itxiak gabiltza, eta guretarak ez direnak bazterrean geratzen zaizkigu.

Behartsuen errealitatea, modu puntualean kontuan hartzen dugu, kolektak egin, eta agian kontzientzia lasaitu. Hoberenak garela pentsatzeko tentazioa ote?

Goi mailan sortutako esperientzia paregabeak (Zestoako “0 Ponentzia” adibidez), beldurtu edo eta bertan behera sortutako dinamika berria utzi.

Laiko batzuei eskainitako aukerak, gero bertan behera utzi, hainbat kasutan bazterrean utzi, eta pertsona horiek “erre”. Apaizen artean hori bera gertatu da ere.

BEHARRAK

Alderdi baikorrak indartu.

Karismak (ez karguak) zaindu, indartu, zerbitzuan jarri.

Elkarteak izan, bakoitzak duen karismarekin: konpartitu, entzun, baloratu, galdetu, gertutasuna zaindu, erabakiak ebanjelioetan oinarrituak (ez “zuzenbidean” bakarrik) hausnartu, erabakiak hartu, koherentziaz jokatu, ospatu.

Gizartean txertatuak egon eta kristau estiloan bizi, jardun; koherentziaz bizi; ausartak izan; inkulturazioa zaindu.

Eliz elkarteetan dugun bertikaltasuna zalantzan jarri, eta elkarteak izateko beste ereduak hausnartu.

Bataioa dugu kristau guzti guztiok gure identitatearen oinarria (Jesusarekiko apaiz bokazioa).

- a) Kontseiluen lanak berrantolatu behar dira elkartearen elkarlana bideratzeko.
 - a. Pastoralgileen ordezkaritza bat izan beharko litzake.
 - b. Liturgia urtearen momentu garrantzitsuenak bideratzeko lekua.
 - c. Hiruhilekoan behin izan ahalko litzake talde osoarekin eta hilabetero egingo diren bileretan talde permanente bat utzi.
 - d. Taldeak denbora antolatzeko elkartu eta denbora hori pasa ondoren, berriz elkartu ebaluazioak egiteko.
 - e. Elkarrekin badauka gure pastoral arloaren inguruko informazio nahikoa. Badirudi zenbait pastoral arlo euren artean oso urrutia daudela.
 - f. Pastoral arlo desberdinetan egiten ditugun lanak elkarbanatu egin behar ditugu. Jendeak gustura entzuten du.
 - g. Kurtso hasieratan egiten ziren asanbladak, taldeen aurkezpenak, etab. Bidalketa bat izaten zen.
- b) Jendearekin harremanetan dauden erakundeak sortu behar dira, elkartearekin, gizartearekin...
 - a. Caritasen harreman permanentean dago Udalarekin, etab. Zerbitzu arlotik izan daiteke gizartearekin dugun harremana.
 - b. Udaleko kooperazio mahaiko informazioa handik ekarri eta berriz ere partekatu.
 - c. Kooperazio mahaian Caritasek ere parte hartzea komeni da.
 - d. Kulturartekotasun kanpainak ere parrokiatik elkartu beharko lirateke.
 - e. Zenbait erakundek elizarekin ere badirudi ez duela loturarik.
- c) Estrukturak aldatu egin behar ditugu. Pastoralta ahulduta dago eta beste zentzu bat eman behar diogu. Elkarrekin. Egiteko jarrerak egin behar ditugu, ez zain egoteko jarrera.
 - a. Beste batzuek egin dituzten aldaketak aurkeztu egin behar dira, inizatiba berriak martxan jarri ahal izateko.
 - b. Estruktura klerikala izaten jarraitzen du. Bideak kontseilu sendoak izatetik eramaten dira aurrera. Kontseilu horietan pertsona liberatuak izateak ere lagunduko luke. Kontseiluak eta euren garrantzia berreskuratu daiteke.
 - c. Iniziatibak izatea komeni da baina nork eramango ditu aurrera? Kontuz ibili behar gara pertsonak ez erretzeko.

- d. Kontseiluak erabakitzeko leku izan behar dira eta ez aholkulariak izateko eremuak. Kontseiluen inguruan dokumentu bat dago.
 - e. Ezin dira estrukturak aldatu bakarka, elizbarruti baten barruan hartu behar dira estruktura horiek.
 - f. Ezin ditugu betiko estrukturak mantendu. Momentuan dauden beharrei erantzun behar zaie.
 - g. Sakramentuen inguruan sortzen dira parte hartzeak eta zerbitzuak.
- d) Ministeritza lantzea ere komeni zaigu. Laikoen ministeritza. Ez da nahikoa kontseilu bateko kide izatea. Bataiatuak ardura hartu behar du, ministerioa landu behar du.
- a. Ministeritzak martxan jarri behar dira. Pertsonak prestatu behar dugu horretarako. Elkarrekin proposatu beharko litzuke zeintzuk diren ministeritzetarako pertsona aproposak.
 - b. Elkarrekin harremanak sendotuko dituzten ministeritzak proposatu behar ditugu.
 - c. Formakuntzak eskaini behar ditugu elizbarruti mailan.
 - d. Katekistentzat adibidez formakuntzak eman behar dira. Zehatzak, motzak, material aproposekin, xumeak...
 - e. Igandeetako ospakizunak eramateko ministeritzak ere lantzea komeni da. Bertako formakuntzetan, liturgiaren inguruko zehaztasunen inguruko gauzak ezagutzea ere komeni da.
 - f. Seminarioetako formakuntza, nahiz eta ordenatu ez, neska zein mutilentzat izan beharko litzateke.
- e) Elkarrekin ematen dizkizu zereginak eta ardurak. Elkarrekin izenean lan egiten dagoela pentsatzen dugu.
- f) Gizartean bi zatitan banatuta bizi gara. Batetik gure ohiko bizitza eta bestetik eliza. Disoziatuta bizi gara.
- a. Errealitateko arazoengatik inguruko formakuntzak ere egin beharko genituzke.
 - b. Herriko entitate desberdinetan parte hartu behar dugu gizarte mailako proposamenetan, modu horretan lotura agertuko litzake..
 - c. Ebanjeliora itzultzea behar dugu. Ebanjelizazioa landu.

- g) Elkarte senak sustatu behar ditugu. Meza osteko elkarketak ere elkarteak sortzen du. Modu indibidualegian ospatzen dugu. Ospakizunetara heltzean egiten dugun harrerak ere garrantzia dauka.
- a. Bizi ditugun gertaerak elkartearekin partekatzen ditugu.
 - b. Gertatzen dena baloratu eta martxan ipintzen hasi. Elkarteak gu gara, ezin gara zain egon. Beste eliza inguruetan ikusten ditugun elkarteak baloratu behar ditugu.
 - c. Elkartearen biltze momentua igandea da.
 - d. Zenbat elkarte sortu nahi ditugu herri batean? Toki bakoitzeko erreferentzia mantendu. Elkartean talde txikiak sortu behar ditugu.
 - e. Arloka sortzen diren kontseilura, gehitu egin behar dira elkarteetako pertsonak.
 - f. Pastoralgileen topaketak egin ikasturte bukaeran.
- h) Goiko auzoetan urtebetetzeak direnean, pasta batzuk ere jaten dira.
- i) Taldeak sortu behar ditugu baliabide bezala. Biblia taldeak.
- j) Helburuak markatzea komeni da.
- a. Denboran zeharreko helburu partekatuak ipintzea.

+ Bakoitza gure aldetik ari gara, eta batera joan behar dugu. Espiritu Santuaren laguntzarekin aurreiritziei, epaitzen aritzeari, negatibo izateari utzi behar diogu, eta berriro elkarrekin bidea egin, martxan jarri.

+ Boluntario gehiago behar ditugu, boluntarioak izan beharko dugu.

+ Indarrak batu eta bakoitzak duenarekin parte hartu.

+ Fedea umiltasunez eta otoitzaren laguntzaz zaindu, indartu.

+ Bidai lagunak denok gara, baita kanpoan daudenak aipatzen diren horiek ere.

+ Modu askotako behartsuak modu berezian kontuan hartu behar ditugu: solidarioagoak izan, humanitarioagoak izan eta beharretan parte aktiboan aritu

-
- Prestakuntza behar dugu: Ikastaroak, otoitz tailerrak, Ebanjelioaren irakurketa, «Parrokiako kide ezberdinentzako» (Katekistak, irakurleak).
 - Hazkunde Espiritualeko erretiroak egitea.

- Prestakuntza teologiala Parrokiako erreferentzia eta animatzaile izateko aukeratutako pertsonentzat.
- Hizkuntza ez dadila banaketa edo urruntzearen arrazoia izan.
- Txango-taldeak, kirol- eta aisialdi-jarduerak sustatzea.
- Parrokoen, laikoen eta bestelako ekimenen arteko topaketak bultzatzea meza-irteeran.

ENTZUTEN JAKITEA

Batez ere, sufritzen duten guztiei, pobreei, gaixoei, adinekoei, errefuxiatuei, baztertuei eta baztertutako taldeei entzutea. Batzuetan gutxiegi dira. Elizak guztiak hartu behar ditu eta ez kondenatu. Gazteei eta emakumeei ez zaie entzuten. Misiolariekin parte hartu duten gazteei entzutea nola aurkitu ziren hemengo erlijio-sistemearekin zerikusirik ez zuen mundu batean, eta hortik atera zituzten balioak hemen aplikatzea. Apaiz ezkonduak berreskuratu beharko nituzke ebanjelizaziorako. Zelibatoak hautazkoa izan beharko luke.

MINTZATZEA

- Elkarte txikietan, hau bezalakoak:
 - Askatasunez hitz egin
 - Maila berean sentitu
 - Bakoitzak dituen gaitasunak onartu
 - Koherentziaz jokatu: hitzak eta ekintzak batera
 - Argumentatzen jakin
 - Ebanjelioa oinarrian
 - Konfiantza
 - Eraginkorragoa dela ikusten dugu
- Elkartetik kanpoan:
 - Lotsa sentitu
 - Ausardia falta

- Eliza instituzioa aldetik, barrenerako bai, baina kanporako: Zer? Nola? Koherentzia?
- Hitz egiteko momentuan:
 - Preparazioa falta
 - Formazio txikia
 - Informazioa eskaxa
 - Ezer esateko gaitasunik ez
- Komunikatzeko erabiltzen ditugun baliabideak, erabiltzen baditugu, aztertu behar dira:
 - Elizako kanpo aldean dagoen panela
 - Web orria
 - Prentsarako

Gutako bakoitzak egia dugula iruditzen zaigu, baina guztion artean osatu behar dugu. Komunitatearen izenean hitz egiten duena kristau herriak aukeratu beharko luke. Guk bezala ikasteko, eskaintzeko, partekatzeko, hartzeko, maitatzeko, salatzen, barkatzeko. Konfiantza izan nahi dugu baina inposatzeko joera duten apezpikuak izaten ditugu. Kritikoa izan daiteke eta izan behar da, baina betiere kritika eraikitzailea bada.

-
- + Gizarteari modu aktiboan entzun behar diogu, behartsuei modu berezian, eta konpromisoak hartu.
 - + Gazteek esan dezaketena entzun, beraiengana hurbildu, ospakizunak eta topaketak egokitu hurbil daitezten.
 - + Elkar modu librean komunikatu, talde txikietan hobeto.
 - + Denok dugu hitza emateko gaitasuna, ez agintari (apaizak) direnak bakarrik.
 - + Arduradunak aukeratzeko momentuan, gure hitza kontuan har dezatela.

Komunitateari parrokiako jardueren/karismen berri ematea (Caritas, osasuna, Esku Batuak, espetxe-pastorala, familia, gazteria...), informazio-hitzaldi, liburuxka eta abarren bidez.

Elizatik urrun dagoen jendea erakartzeko hitzaldi informatiboak.

OSPATZEA

- Ospatzailea, apaiza, eta gu ?
- Ospatu igandeetan bakarrik
- Ospakizunak, bizitzarekin lotuak?
- Batzuetan antzerki aspergarria, liburuari begira, errepikagarria...
- Eukaristiari sentidua eman?
- Elkarte esperientzia izan eta bizitzarekin lotu
- Eta ospakizuna amaitu ondoren, dena amaitzen da? Eguneroko bizitzan ez dugu ospatutakoa jarraitzen?
- Ministerioak ba omen dira: Lectorado, Acolitado. Nola lantzen dugun hori? Aldez aurretik prestatu? ...
- Ospatzeko girotu behar da. Nola egiten dugu?
- Sartu aurretik, pertsonekin harremana? Eta amaitu ondoren?
- Egun, eta pandemia dela eta, eskua ematea ezin da, baina bakea desiratzeko beste moduak badira.
- Kantuen erritmoa zaindu behar da

• _____

Elkarrekin ibiltzea, Hitzaren entzute komunitarioan eta Eukaristiaren ospakizunean bakarrik da posible. Komeniko litzateke irakurketak arintzea eta benetan eguneratzea. Homilietan uneko errealitate soziala islatzen saiatzea. Ospakizun-bizipenaren ilusioa islatzea. Eukaristiak parte-hartze aktiboa izan behar du. Eliza bat baino gehiago dagoen herrietan, beren irudikapenak batu eta ikastetxe guztiak berdin eskaini eta balioetsi ditzatela. Laikoengan konfiantza izatea, domeketako topaketak benetako ilusio eta federekin bizi eta ospatu daitezke.

+ Ospakizunak errutina bidean sartu dira, aldaketak egin behar dira, modu berezian irakurgaiak ulertu ahal izateko baliabideak sortuta.

+ Igandero Eukaristia ospatzen jarraitu, eta hasitako aldaketekin jarraitu: monizioak, azalpenak, sinboloak ...

+ Otoitza egin ez beharrak sentitzen ditugunean, edozein momentutan baizik.

+ Elkartean ospatzeko aukerak izan, animatu. Irakurleak prestatu.

+ Homiliak monologoak ez izan, parte hartzeko bideak sortu.

Jaunaren Hitza hainbat talderi aurkezteko modua egokitzea (haurrak, nerabeak, gazteak, helduak...).

Gazteentzako eta familientzako mezak egitea.

Komunitateari mezaren irakurketetan eta eskaeretan parte harraraztea.

MISIOAN ERANTZUNKIDE

- Egun, Misiorako gonbidapena egiten al dugu?
- Garai batean, bataiatzerakoan, gurasoek zerbait entzuten zuten
- Katekista sartzekoan, sentimendu hori bai izaten genuen, baita gero jarduera desberdinetan ere: ospakizunak, katekesi saioak, gurasoekin topaketetan, elkarrizketetan...
- Eguneroko bizitzan, nola egiten dugun Misioa zabaltzeko? Eguneroko esperientzia horretan, guran ikusten al dute Misio horren erreferentzia?
- Eta, zer da Misioa? Nazareteko Jesusen mezua zabaldu, lekukoak izan, mezuaren koherentziaz bizi.

Oso garrantzitsua da guztiontzat ibiltzen hasteko. Laiko asko daude ondo prestatuta, eta beste batzuek asko dugu ikasteko. Katekesia oso garrantzitsua izan da gure parroketan. Eta horrela izan behar du, baina katekistak (gurasoak) prestatuz ikasturte guztietan eta zein txandakakoetan. Baina inork ez dezala bere egia inposatu.

+ Taldeak badira, ez dira ezagutzen. Ezagutarazi behar dira.

+ Pastoralta jarduera desberdinetan, arduradunak izendatu, elkartean jardueren berri eman, elkarren artean hitz egin, baita elizbarrutia mailan ere.

ELIZAN ETA GIZARTEAN ELKARRIZKETA

- Askatasun mentala falta ote zaigu sentitzen dugunaz hitz egiteko?
- Inguruan ditugun beste erlijioso/a taldeekin, oso harreman txikia dago, modu pertsonalean ez badago. Eta beste erlijioekin, bat ere ez.
- Gure artean, eta gure kuadriletan, gure sinismen esperientziatik hitz egiten dugu, baina gurea ez dutela baloratzen sentsazioarekin.
- Eliza mailan, ez baldin bada goi mailan, gure artean ez da gizartean, politikan ... elkarrizketarik egiten.

• _____

Elkarrizketak gardentasuna eskatzen du. Sexu-abusuen kasua dugu: Elizak inplikatu eta ikerketa independente batean lagundu behar du. Egia, justizia, prebentzioa eta erreparazioa. Entzun egin behar da, eta biktimekin egon. Eta hor dago immatrikulazioen gaia. Inskribatutako jabetza gehienak Elizarenak dira, baina kristau herriak finantzatzen ditu, baina horretarako modua zuzena izan al da? Ondo dago Kordobako meskita, Katedrala eta abar inskribatzea.

Parrokia-lokalak izatea/erabiltzea elizatik kanpoko beste jarduera batzuetarako (afari solidarioak, aisialdia...).

BESTE KRISTAU KONFESIOEKIN HARREMANAK

- Beste Kristau-Konfesioekin ez dugu inoiz harremanik izan. Aukerarik ez dugu izan ezta bilatu ere. Orokorrean beste Kristau-Konfesioen aurrean mesfidantza sentimendua dago.

• _____

- + Beste erlijioekin elkarrizketak sortu, nahiz hasieran ez da erraz ikusten. Pauso txikiak eman, eta aurrera egin.

AGINTEA ETA PARTE HARTZEA

- Apaizek, egun, agintzen dute. Parte hartzea? Bai, agindutakoaren arabera: sumisio handia.

- Zerbait egiteko, beti baimena eskatu behar izaten dugu.
- Erantzukideak bai, dudarik gabe. Beti ere markatutako gauzetan soilik. Iniziatiba mugatua geratzen da. Momentu honetan arriskatzeko indarririk ez dago.
- Apaizekin sortzen diren harremanetan talkak gertatuz gero, gure kasuan, gaizki ateratzen garenak gu gara.
- Ministerio laikalak ez dira bultzatzen. Laguntza eskeak bai, lagundu baita ere. Eta laguntzarik eskatzen ez bada, ez da zere gertatzen.

BEREIZI ETA ERABAKI

- BEREIZI jarduera ez dugu inoiz egin. Agian kontsultaren bat edo beste eskatu, eta hau ez da bereizmena. Beraz, hau lantzen garaia da ere. Honen ildotik, erabakiak hartzea ez da, egun. Egiten dugun zerbait, lehen aipatutakoaren arabera “baimena” eskean ibili behar izaten dugu eta oso gutxitan sortzen dira elkarrizketak, bereizmena eta elkarrekin erabakiak hartzeko aukerak
- FORMAZIO MAILA, urte oparoak ezagutu ditugu, formazio asko eta onak jasotzeko aukera handia izan dugu, formatzaile onak eta baliotsuak ezagutu ditugu. Dinamika hori moteltzen joan da eta egun gauza gutxi bultzatzen da.

Elizbarruti mailan eskaintzak sortzen dira. Agian, eta egun gauden pastoral arlo desberdineko pertsonak, noiz egiten diren birpentsatu behar da (Elizbarruti mailan, Unitate Pastoral mailan ???).

SINODALIDADEAN HEZI

Dena egiteko daukagu.

BESTEAK:

EMAKUMEA ETA ELIZA

Emakumeak eraman du normalean parrokia baten ibilbidea. Egin zezakeen guztia isilean eginez. Ziurtzat jotzen dut emakumea funtsezko pieza dela eta kleroari ikusarazi behar zaiola zer laguntza izan den. Bere lekua izan behar du arlo erlijiosoan.

Nazareteko Jesusek gainerako gizonak bezala tratatu zituen. Apaizek eta gotzainek berdin jokatu beharko lukete. Denok gaude artalde berean. Emakumeak isilaraziak dira. Eliza barruan baztertu egiten dira. Emakumeen ordenaziora iristeko urratsak eman behar dira. Izan ere, ez dago hori debekatzen duen arrazoi teologikorik. Tradizioa besterik ez. Ikaragarria da elizako burujabeen misogenia.